

PUNTUREN ISTORIAO

HELBURUAK

- Talde batentzat dibertsitateak duen balioa ulertzea eta haur guztien balioaz jabetzea, handi zein txiki izan.
- Diskriminazioa denontzat kaltegarria den zerbait bezala identifikatzea.
- Enpatia eta bestearen larruan jartzeko gaitasuna sustatzea.

BEHARREZKO MATERIALAK

- Bideoa: "Punturen istorioa", hemen eskuragarri: www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/punturen-istorioa-haur-hezkuntzarako-jarduera

LAGUNTZA-MATERIALA

- *Eskolan salbu. Babes-inguruneetan ikasten*, eskubideetarako eta herritartasun globalerako hezkuntzako jardueren eta baliabideen gida edozein indarkeria modutik aske egoteko haurrek duten eskubideari buruz, hemen eskuragarri: www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/eskolan-salbu-ikasturteko-gida

Txikia izateak ez du esan nahi garrantzi gutxikoa izatea, eta desberdina izateak ez du esan nahi gutxiago balio izatea. Jarduera hau lagungarria izango zaigu pertsona guztien balioari buruzko hausnarketa bat ikasgelan egiteko eta txikia izatea oso gauza handia izan daitekeela jabetzeko.



Jarduera prestatzea

Punturen istorioa bideoa proiektatuko dugu. Bideo honetan kontatzen zai-
gun istorioak Puntu du protagonistatzat: ikasle txiki bat da, oso berezia, eta
baliogabe sentitzen da. Hona hemen gure taldearekin eztabaida batera edo
batzar batera gida gaitzaketen galdera batzuk:

1. Nor da Puntu? Nolakoa da Puntu?
Zeintzuk dira zure ustez Puntuk dituen gauza onak?
2. Nolakoa da Punturen ikastetxea? Zerk eragiten du berezia izatea?
3. Nolakoak dira letrak? Zein ezaugarri dituzte?
4. Letrak eta Puntu lagunak al dira hasieran? Zer gertatzen da zure
ustez? Zer iruditzen zaizu?
5. Nola sentitzen da Puntu? Zer gertatzen zaio?
6. Zer jakingo dute letrak? Zer egiten dute?
7. Nola amaitzen da istorioa? Amaiera ona iruditzen zaizu?
8. Zer egingo zenuke zure ikastetxean antzeko zerbait gertatuko
balitzaizu?

#EndViolence

Elkartu zaitez UNICEFen munduko kanpainara indarkeriari azkena emateko. Ospatu ezazu Haurren Eguna zure ikastetxean, bakearen eta tratu onaren aldeko txerto batekin. Jakin ezazu nola egin hemen: www.unicef.es/eus/educa/tratuona



ERANSKINA: Koloreztatzeko fitxa

